

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**20 AÑOS
URTE**



Servicio Municipal de Educación Ambiental
Ermuko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua

Ermuko ikastetxeetako adiskideok:

Jakingo duzuenez 2013 urte honetan zehar ingurumen zinegotzigo honetan **Ingurumen Hezkuntzako Udal Zerbitzuak** 20 urte betetzen dituela ospatzen ari da, eta ospakizun horri amaiera emateko **Atzera Begirako Argazki Erakusketa** bat antolatu dugu zuekin guztiokin konpartitu ahal izateko.

Asko izan zarete 20 urte hauetan jarduerak antolatzeko eskatu diguzuen irakasleok eta are gehiago Kontzientziako Zerbitzu berezi honetatik pasatu diren umeak: 1.000 inguru urtean, gutxi gorabehera.

Berreskuratu egin dugu denboran zehar egindako ibilbide hori eta argazki-bilduma batean islatu dugu, izan diren aldaketak erakusteko: nola joan garen lau gaitik hamarrera, ikasgelako saioak, saio praktikoak eta irteerak. Dakizuenez Azterkosta, Energia Berriztagarriak, Kontsumoa eta Ingurumena, errekak eta ibaiak, basoak eta gure hirigintza dira aipagarrienak.


Horien guztien asmoa jakin-mina suspertzea, aukerak handiagotzea, galderak egitea, erantzunak ematea, gertu gertuko ingurumen naturala umeei eta beraien familiei hurbiltzea izan da, zuen ikastetxeetako proiektuak eta zuen erabateko bokazioa eta konplizitatea osatuz.

Ermuko Ingurumen Hezkuntzaren ibilbidean zeharreko pasealdi hau gurekin batera egitera gonbidatzen zaituztegu, azaroaren azkenengo astean, 25tik 29ra hain zuen, 18:00etatik 20:30era bitarteko ordutegian.

Zuekin harremanetan jarriko gara eguna eta ordua zehazteko eta aste horretako egun batean bisita gidatua egiteko, zuek aukeratutako talde batekin edo taldeekin, ikasleen gainerako bisitak gurasoekin egin beharko dira-eta.

Interesgarria irudituko zaizuelakoan, egun horretara arte, besarkada handi bat.

Ermuan, 2013ko azaroaren 12an
INGURUMENEN ZINEGOTZIAK



Sin.: Félix Pro Salgado



Ongarai LHlko gurasook:

2013 urte honetan zehar ingurumen zinegotzigo honetan **Ingurumen Hezkuntzako Udal Zerbitzuak** 20 urte bete dituela ospatzen ari da, eta ospakizun horri amaiera emateko **Atzera Begirako Argazki Erakusketa** bat antolatu dugu zuekin guztiokin konpartitu ahal izateko.

20 urte hauetan guk antolatutako hamaika jardueratan parte hartu dute zuen seme-alabek: hirigintzaz hitz egiteko ibilaldiak herrian zehar, birziklatzearen zentzua ikasteko edukiontzia ikustea eta abar. Zuek, behar bada, ez zenuten beti horien berri izango, baina guk baditugu Kontzientziazio Zerbitzu berezi honetatik pasatu diren hainbat eta hainbat umeren irudiak, 1.000 bat ume urtean gutxi gorabehera.

Berreskuratu egin dugu denboran zehar egindako ibilbide hori eta argazki-bilduma batean islatu dugu, izan diren aldaketak erakusteko: nola joan garen lau gaitik hamarrera, ikasgelako saioak, saio praktikoak eta irteerak. Dakizuenez Azterkosta, Energia Berriztagarriak, Kontsumoa eta Ingurumena, errekak eta ibaiak, basoak eta gure hirigintza dira aipagarrienak.

Ermuko Ingurumen Hezkuntzaren ibilbidean zeharreko pasealdi hau gurekin batera egitera gonbidatzen zaituztegu, azaroaren azkenengo astean, 25tik 29ra hain zuen, 18:00etatik 20:30era bitarteko ordutegian.

Familia osoarekin etortzera animatzen zaituztegu eta zueneko ingurumenzaleak aurkitzera.

Egun horretara arte, besarkada handi bat.

Ermuan, 2013ko azaroaren 12an
INGURUMENENKO ZINEGOTZIAK

Sin.: Felix Priol Salgado

